

GOBERNU BATZARRA

2014. 11. 20

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamalauko azaroaren 20an, goizeko 09:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko:
Ibai Iriarte San Vicente	
Zinegotziak:	
Hasier de los Rios Soraluze Rosa M. Urkola Irigoien	1.- Aurreko akta onartzea.
	2.-Tolosako N-1aren Ipar Loturan biribilgune bat eraikitze obren 5. ziurtagiria (446/14 faktura).
Idazkaria:	3.-GERTEK Sociedad de Gestion y Servicio, S.A.,k egin duen eskaera.
Jose Luis Unanue Ugalde.	4.-Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa, 2014ko iraileko faktura.
Kontuhartzaitzako Teknikaria:	5.- Hondakinen bilketa tasa, L.G.M.en eskaera./Tasa de recogida de residuos, Solicitud de L.G.M.
Paulino Alonso Eraso.	6.-36/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2014ko azaroaren 14an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Tolosako N-1aren Ipar Loturan biribilgune bat eraikitze obren 5. ziurtagiria (446/14 faktura).

Bi mila eta hamahiruko azaroaren 29an sinaturiko 2013/1658 zenbakidun alkate dekretu bidez Construcciones Amenabar, S.A., enpresari esleitu zitzaion Tolosako N-laren Ipar loturan biribilgune bat eraikitze obren kontratua, 411.588,62€ izen zelarrik esleipenaren zenbatekoa.

Bi mila eta hamalauko azaroaren 13an Construcciones Amenabar, S.A., enpresak 5. ziurtagiria aurkeztu du, 56.416,27 €-koa.

Ziurtagiri hau aztertuta eta kontuan izanik Udal teknikoak oniritzia eman diola, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosako N-laren Ipar lotura biribilgune bat eraikitzeko bosgarren ziurtagiria (fak zkia: 446/14), 56.416,27€koa (BEZa barne).

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Construcciones Amenabar, S.A., enpresari eta Kontuhartailtzari.

3.- GERTEK Sociedad de Gestion y Servicio, S.A.,k egin duen eskaera.

Tolosako bide publiko jakin batzuetan ibilgailuen aparkamendua kontrolatu, mugatu eta antolatzeko zerbitzua kudeatzen duenak, GERTEK SOCIEDAD DE GESTION Y SERVICIO, S.A., enpresak, kontratua berraztertzeke eskaera aurkeztu du.

Tolosako udaletxearekin sinatutako kontratuan barne den Baldintza-agirien 4. artikuluan jasota dago "Kontratuaren prezioa berraztertu ahal izango dela urtero udalak dituen aurrekontu-baliabideen arabera".

Hori dela eta, enpresa eta Tolosako udalaren artean dagoen kontratuak adierazten duen bezala, urtero dagokion prezioen berrazterketa egitea eskatzen du, alegia, EAEko KPlaren bariazioa, 2013ko ekainetik 2014ko ekainera doana %0,5ekoa izatea.

Kontuan hartuz, Tolosako udalak, berriz, ohikoa duen bezala, aipatutako bariazioa Hego Euskal Herrikoa, %0,325ekoa hartzen duela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- GERTEK SOCIEDAD DE GESTION Y SERVICIO, S.A.,k egin duen eskaera ezezkoa ematea, eta aldiz Hego Euskal Herriko %0,325 igoera aplikatzea 2014ko uztailaren 1etik hasita.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea, Kontuhartzailtzari, Udaltzaingoari eta GERTEK SOCIEDAD DE GESTION Y SERVICIO, S.A.,ri.

4.-Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa, 2014ko iraileko faktura.

Tolosaldeko Mankomunitatean 3 sistema desberdinen bidez egiten da hondakinen bilketa: atez-atekoa, landa eremukoa eta edukiontzien bitartez egiten dena. Sistema bakoitzak ingurumenarekiko eragin desberdinak ditu eta sistema bakoitzaren kostuak eta diru sarrerak (bilketa, garraioa eta tratamendua) desberdinak dira. Hori dela-eta, formula bat garatu da Mankomunitatearen baitan herri bakoitzak egin beharreko ekarpenak modu orekatu eta justuan banatzeko.

Horrela, bi zatitan banatzen da udal bakoitzak egin beharreko ekarpena:

* **Gastu finkoa:** Hondakinen bilketa sistema bakoitzari dagokiona eta mankomunitatearen gastu estrukturaleri dagokiena.

***Gastu aldakorra:** Hondakinen tratamenduari dagokiona, material birziklagarrien diru-sarrerak kontuan hartuta.

Hori guztia kontuan izanik, Tolosaldeko Mankomunitateak 2014ko irailari dagokion faktura, 2014/300 (145.269,97 €-koa), aurkeztu du.

Beraz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosaldeko Mankomunitateak aurkeztutako faktura (irailari dagokiona). Kopuru osoa: 145.269,97 €.

BIGARRENA- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Ingurumena departamentuari eta Tolosaldeko Mankomunitateari.

5.- Hondakinen bilketa tasa, L.G.M.en eskaera./Tasa de recogida de residuos, Solicitud de L.G.M.

2014ko apirilaren 2an, **L.G.M.**-k hondakinen bilketa zerbitzuko tasaren hobaria eskatu du.

Hondakinen bilketako tasen hobariak zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik tasen ordenantza fiskalean arautzen dira. Hain zuzen ere, 2.1.6. eranskinaren 5. artikuluan.

Bertan, adierazten da hondakinen bilketa

El 2 de abril de 2014, **L.G.M.** ha solicitado la bonificación de la tasa de recogida de residuos.

Las bonificaciones de las tasas de recogida de residuos vienen reguladas en las tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades de las Ordenanzas Fiscales. Concretamente, en el artículo 5º del Anexo 2.1.6.

En él se dispone que los sujetos pasivos

zerbitzuko tasaren %100aren hobaria izango dutela lanbidearteko gutxieneko soldatara iristen ez diren sarrerak dituzten subjektu pasiboek, edo gizarteratzeko eta diru sarrerak bermatzeko euskal sistemak eskeintzen dituen prestakuntza ekonomiko baterako baldintzak betetzen dituenak.

Gobernu Batarrak, 2014ko maiatzaren 23an eta uztailaren 4ean, hobaria ez ematea erabaki zuen eskaera epez kanpo egin zelako.

Honetaz gain, **L.G.M.**ek bere desadostasuna erakutsi du.

Aipatutakoa kontuan izanik eta ikusita kasu konkretu honetan azaltzen diren arrazoi bereziak, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **L.G.M.**ri ematea eskatutako hondakinen bilketa tasaren hobaria.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailtza departamentuari eta interesatuari.

que acrediten unos ingresos inferiores al salario mínimo interprofesional o que cumplan los requisitos para el acceso a alguna de las prestaciones económicas del sistema vasco de garantía de ingresos e inclusión social gozarán de una bonificación del 100% de la tasa por el servicio de recogida de residuos.

Esta Junta de Gobierno, en sesión celebrada el 23 de mayo de 2014 y 4 de julio de 2014, acordó no conceder la bonificación por haber realizado la solicitud fuera de plazo.

A este respecto, el Sr. **L.G.M.** muestra su disconformidad.

A la vista de cuanto antecede y teniendo en cuenta las circunstancias especiales que en el presente caso concurren, esta Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Conceder la bonificación de la tasa de recogida de residuos solicitada por **L.G.M.**

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y al interesado.

6.- 36/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzailtzak **36/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; **128.420,81** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 36/2014 faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Gai zerrendatik aparte eta daukaten premia kontuan izanik, ondoren aipatzen diren gaiak tratatzen dira:

Euskal Herria plazako 1-B eraikineko 25 zuzkidura bizitegien sukaldeak eta armairuak hornitzeko eta instalatzeko kontratuaren 1. ziurtagiria-likidazioa (92152099) faktura.

Udal Gobernu Batzarraren erabakiz, 2014ko urtarrilaren 10ean, El Corte Inglés, S.A., enpresari esleitu zitzaion Tolosako Euskal Herria plazako 1-B eraikineko 25 zuzkidura bizitegien sukaldeak eta armairuak hornitzeko eta instalatzeko kontratua, 108.839,50 euro (BEZa barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Bi mila hamalauko azaroaren 7an, obraren zuzendaritzak 1. Ziurtagiri-likidazioa aurkeztu du, 115.028,65 €-koa.

Ziurtagiri hau aztertuta eta kontuan izanik Udal teknikoak oniritzia eman diola aipatutako ziurtagiriari, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako Euskal Herria plazako 1-B eraikineko 25 zuzkidura bizitegien sukaldeak eta armairuak hornitzeko eta instalatzeko 1.Ziurtagiri-likidazioa onartzea, 115.028,65 eurokoa (BEZa barne) .

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta El Corte Inglés, S.A., enpresari.

Subentzio baten ordainketa era aldatzea.

Gobernu Batzarrak, 2014ko urriaren 10ean, onartu zuen Biladi-Palestinako Kultura Zentroari 1.810,26 euroko diru laguntza ematea. Baina, ikusita 2014ko azaroaren 6an Gizarte Zerbitzutako departamentuak egin duen txostena eta berarekin bat etorritz,

Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emanako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Biladi-Palestinako Kultura Zentroari 1.810,25 €ko diru laguntza eman beharrean, JESUS ARTETXE ESQUISABEL-i ematea, bere garaian Zuloaga Txikin egindako gastuak ordaintzeko.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Gizarte Zerbitzuetako departamentuari, Kontuhartzaitzari, Biladi-Palestinako Kultura Zentroari eta Jesús Artetxe Esquisabeli.

Tolosaldea Sahararen diru laguntza.-

Gobernu Batzarrak 2014ko urriaren 10ean onartu zuen “Tolosaldea Saharari” 5.000€-ko diru laguntza ematea Saharako Lurralde Askatueto Midyich herrirako 2. eskuko ibilgailua erosteko helburuarekin.

Udalak diru laguntza hauek emateko bi zatitan egiten ditu, lehenbizikoa, kontratua sinatzean eta bigarrena, berriz, baldintza batzuek betetzerakoan.

Ikusita Tolosaldea Sahararekin Elkartek aurkeztu duen idatzia, non eskatzen dute diru laguntza osoa batera jasotzea, eskaera hau egiteko arrazoiak aipatuz, Gobernu Batzar honek, Gizarte Zerbitzuetako departamentuak egin duen txostenarekin bat etorriz, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosaldea Sahararekin Elkarteari 5.000 euroko diru laguntza orain ematea, eta elkartearen ordezkariak aipatzen duen moduan, urte hau bukatu baino lehen, proiektuari dagozkion agiriak Udalean aurkeztea eskatzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Gizarte Zerbitzuetako departamentuari, Kontuhartzaitzari, eta Tolosaldea Sahararekin Elkarteari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA